

DESCARTES



ESKEMA

- a. Testuingurua
 - i. Datu biografikoak
 - ii. Testuinguru historikoa:
 1. Aro Modernoko eskema orokorra
 2. Errenazimendua
 - iii. Testuinguru filosofikoa:
 1. **Filosofia modernoa. Errenazimentua. Iraultza zientifikoa.**
 2. **Eragin filosofikoak Descartesengan**
- b. Descartesen filosofia:
 - i. Ezagutzaren teoria: arrazionalismoa, metodoa, lehen egia eta analisia.
 - ii. Errealitatearen teoria: Substantzien teoria.
- c. Testua: *Meditazio filosofikoak: bigarren meditazioa.*

DESCARTESEN TESTUINGURUA

1. DATU BIOGRAFIKOAK

- René Descartes, La Hayen (Frantzia) jaio zen 1596. urtean eta Stockholmen hil zen 1650.ean. Arrazionalismo modernoaren sortzailea da.
- Familia noblekoa zen. La Fleche-ko jesuiten ikastegian ikasi zuen zientzia eta filosofia, eskolastika aristotelikoa hain zuzen. Poitierseko unibertsitatean zuzenbidea ikasi zuen.. Militarra izan zen eta Hogeita Hamar urteko gerran parte hartu zuen. Armada utzi eta Holandara joan zen bizitzera zientzia eta filosofiari buruz idazteko, eta hor hogei urteetan zehar igaro zuen. Azkenik, Suediako erreginak Stockholmera deitu zuen bere kontseilaria izateko eta han hil zen.
- Lanak: *Metodoari buruzko diskurtsoa* eta *Meditazio metafisikoak*

2. TESTUINGURU HISTORIKOA

ARO MODERNOA: ESKEMA OROKORRA

	Gertakizun historikoak	KULTURA	FILOSOFIA
XV –XVI ERRENAZIMENTUA	XV: Amerikar aurkikuntza XVI Europar: botere- konzentrazioa: Estatu nazionalak, handiak, kolonialak GIZARTEA: Feudalismoa kapitalismoa	Italian Quattrocento Erreforma <div style="border: 1px solid black; padding: 2px;">Iraultza zientifikoa Copernico, Kepler, Galileo</div>	<u>Elijioa - filosofia:</u> Erasmus Roterdamgoa Lutero <u>Politiko teorikoak:</u> Maquiavelo Tomas Moro
XVII BARROKOA	Monarkia absolutistak 1688: Ingalaterrako iraultza	Newton Arte Barrokoa	Arrazionalismoa Enpirismoa
XVIII ILUSTRAZIOA	XVIII Amerika eta Frantziako iraultzak	Literatura: Cervantes eta Shakespeare Arte Rococo Frantzia: Entziklopedia	<u>Ilustrazio frantziarra</u> Voltaire, Rousseau <u>Ilustrazio alemaniarra</u> Kant Hegel

3. ERRENAZIMENTUA

Datak: 1453 (Konstantinopla erori zenetik) 1600 arte kontsideratzen da errenazimentua edo berpizkundea.

- Egoera **kulturala**:

Humanismoa: Errenazimentuko ideologia zen (politikan, erlijioan, filosofian) eta honako puntu hauek laburbildu daitezke:

- Gizakia gauza guztien neurri bilakatu zen eta ikuspuntu teozentrikoa baztertu zen.
- Gizakia bere buruaren jabea da, askea da, jainkoarengandik lokarriak askatzen hasten dira.
- Gizakiak natura ulertu eta kontrola dezakeelako ideia zabaldu zen.
- Orokorrean humanismoak gizatasuna teozentrismotik "laizismora" eramango zuen, hau da, politika, zientzia edo artea elizatik kanpo eta jainkoaren laguntzarik gabe egin daitezke.
- Kultura eta artea Elizaren instituzioetatik ateratzen da.

- Egoera **soziala**:

Bilakaera ekonomikoaren ondorioz, kapitalismoa indartzen joan zen, eta horrek aldaketa sozialak ekarri zituen. Gizarte feudala eraldatzen joango zen eta burgesiak, eskuratua zuen eragin ekonomikoaren ondorioz, gero eta botere politiko handiagoa eta eragin sozial handiagoa izaten joango zen. Europa osoan iraultza burgesak gertatu ziren. Ezagunena Frantziako iraultza da. Baina aurretik Britainia Handian, Holandan, Amerikako Estatu Batuetan edo Alemanian ere gertatu ziren. Poliki-poliki iraultza burgesa Mendebaldeko Estatu guztietan hedatu zen.

- Orden **politiko** berria:

Elizaren nagusitasun politikoa indargabetu zen eta estatu laikoaren ideia jaio zen. Boterea bereizi eta banatu zen: alde batetik Elizarena, beste aldetik, erregearena. Hainbat lekutan erregearen boterea nolabait kontrolatzeko parlamentuak sortu ziren, bai; baina Europan monarkia autoritarioa nagusitu zen.

- **Erljioa**: ordena berria. Batasunetik pluraltasunera.

- Erreforma protestantea 1500. urte inguruan: Eliza katoliko erromatarraren aurrean, iraultza protestantea altxatu zen: luteranoak (Martin Luther), kalbinistak (Joan Kalbin) eta anglikanoak (Inglaterrako eliza) sortu ziren.
- Kontrarreforma katolikoa: Trentoko Kontzilioa (1545-1563) tomismoaren ideiak katolikoaren doktrina finkatzeko erabili ziren.

- **Iraultza zientifikoa**:

- Erdi aroko panorama zientifiko itxia kritikatzeko hasi zen eta zientziak, arrazoiak teologia eta elizaren menpekotasunetik askatuz, bere autonomia eskuratu zuen eta zientzia modernoaren oinarri metodologikoak ezarri zituen.
- Astronomiaren iraultza: (XVI-XVII): Koperniko, Kepler eta Galileoren eskuetatik geozentrismotik heliozentrismora pasatu zen. Iraultza honek beste zientzietan eragina izango zuen (fisikaren iraultza XVII mendean Newtonek egingo zuen)
- Galileok zientziarako metodo berri bat aurkeztu zuen (metodo hipotetiko deduktiboa) eta zientzialari guztientzat eredu bihurtuko zena.

3. DESCARTESEN TESTUINGURU FILOSOFIKOA

XIV. mendean Filosofia eskolastikoaren krisialdia hasi zen, eta horrekin batera **ikuspegi teozentrikoan oinarrituriko filosofiaren amaiera**. Krisialdi hori eragin zutenen artean nabarmendu beharra dugu Guillem Okchangoak egin zuen kritika eta berak bultzatu zuen Nominalismoa. Baina iraultza filosofikoa iraultza zientifikoaren ondorioz gertatu zen, eta lehen filosofo modernoak XVII. mendean agertu ziren. Bitartean, unibertitateetan oraindik tomismoak indar handia zuen. Bepizkundearen idealen itzalean autore klasikoak (Platon, Aristoteles) berrikusi zituzten baina tomismoaren krisoetik filtratuta daude. Hala ere, filosofo modernoek erdi aroko teozentrismoa alde batera utzi nahi zuten. XVI mendean filosofia politikoa ere interesa piztu zuen eta hor daude Tomas Moro ("Utopia") eta Maquiavelo ("Printzea"). Baina XVII. mendean Descartesekin filosofia modernitatean sartu zen benetan, eta XIX. mendearen lehen zati arte iraundu zuen, Hegelen heriotza arte, hain zuzen (1831).

Aro honetako filosofiaren **gai nagusia giza ezagutza** zen, eta hain zuzen ere ezagutzaren iturria: nondik hasten da gure ezagutza munduari buruz? Nondik etortzen dira gure ideiak? Nola jakin dezakegu zein den benetako egia? Horrelako galderak egin zituzten. Beraz, gaia nahiko berria da,: Antzinaroan gaia "physis" eta gizakia nahiz gizartea izan ziren aztergaiak, Erdi aroan Jainkoa eta bere kreaioa ziren, Aro Modernoan gizakia, bere ezagutza eta zientziaren balorea izango ziren. Momentu horretan, zientzia aldatzen ari denean, filosofoek zientziaren oinarriak bilatu zituzten, eta zientziak nola jokutzen duen galdetzen zuten.

Aro modernoko **eskola filosofiko nagusiak** eta filosofo garrantzitsuenak hauek ditugu:

- 1.- Arrazionalismoa: DESCARTES
- 2.- Enpirismoa: LOCKE ETA HUME
- 3.- Idealismoa: KANT ETA HEGEL

ERAGIN FILOSOFIKOAK DESCARTESENGAN

Descartesen formakuntza eskolastikoa zen, eta metafisika tomista zegoen oinarrian, baina iraultza zientifikoa kontuan izanda, metafisika tradizional hori berrikusi eta filosofia berri bat egin nahi zuen. Hala ere berarengan eragin klasikoa oso handia da, batez ere platonismoa eta, nola ez, kristautasuna.

Descartesen testuinguruaren eskema:

- Datu biografikoak
 - La Hayen 1596 - Stockholmen 1650
 - ikasi zuen zientzia eta filosofia,
 - Militarra izan zen
 - Holandara filosofiari buruz idazteko
 - Lanak: *Metodoari buruzko diskurtsoa* eta *Meditazio metafisikoak*
- Testuinguru historikoa
 - Errenazimentuan (XV – XVI): aldaketa asko:
 - Balore humanistikoak
 - Sozialki burgesiak indarra hartu eta gizartea aldatzen doa
 - Orden politiko berria: Elizak boterea galdu eta boterea banatzen da
 - Erlijioa: erreforma eta kontrarreforma
 - Kultura eta arte Elizaren menpekotasunetik askatzen da.
 - Amerikarekin topo: eragin kulturalak
 - Zientziaren iraultza (Descartesek filosofian ere iraultza bat nahi du)
- Testuinguru filosofikoa
 - Tomismoaren krisia (teozentristatik antropozentristora) Descartes tomismoan formatzen da.
 - Nominalismoaren kritika (Ockham XIV. mendean)
 - Pentsalari errenazentistak: Thomas Moro, Erasmus, Maquiavelo: gai sozial eta politikoak
 - Filosofiak ere berrikuntza bat behar du.

DESCARTESEN FILOSOFIA

a) EZAGUTZAREN GAINEKO TEORIA

- a. **SARRERA: DESCARTES ETA ARRAZIONALISMOA. ARRAZIONALISMOAREN EZAUGARRIAK**
- b. **METODOA ETA ZALANTZA METODIKOA**
- c. **LEHEN EGIA NABARIA: COGITO ERGO SUM.**
- d. **LEHEN EGIAREN ANALISIA: IDEIA INNATOAK**
- e. **DESCARTESEN EZAGUTZAREN GAINEKO TEORIAREN ONDORIOAK**

b) ERREALITATEAREN GAINEKO TEORIA: HIRU SUBSTANTZIAK ETA GIZAKIAREN GAINEKO KONTZEPTUA

a) EZAGUTZAREN GAINEKO TEORIA

1 SARRERA: DESCARTES ETA ARRAZIONALISMOA

Zer da arrazionalismoa? Orokorrean arrazionalismo filosofikoa arrazoia ezagutzeko bide zuzena dela onartzen duen jarrera filosofikoa da, ezagutzeko arrazoiaren bideari bestelako bideak baino garrantzi handiago ematen diona. Zentzu orokor honetan filosofo guztiak arrazionalistak direla esan daiteke: Filosofia oro, bere hasieratik, mundua modu logiko batez azaltzen saiatzen da. Platon, Aristoteles edo Tomas Aquinokoa zentzu orokorrean arrazionalistak direla esan daiteke.

Baina zehazki arrazionalismoa korrante filosofiko konkretu bat da: Arrazionalismoa XVII. mendean Frantzian eta Descartes-en eskutik sortutako mugimendu filosofikoa da; eta bere ezaugarri nagusia ezagutza oro arrazoiaren sortu egiten dela baieztatzea da. Arrazionalismoa Europa kontinentalean sortu eta hedatzen da: Frantzian, Holandan eta Alemanian nagusiki.

Arrazionalismoaren **filosofo aipagarrienak** hauek ditugu:

- René Descartes, Frantzia, (1596-1650)
- Nicolas MALEBRANCHE, Frantzia (1638-1715)
- Baruch SPINOZA, Holanda (1632-1677)
- Gottfried Wilhelm LEIBNIZ (Alemania 1646-1716)

Descartesaren Arrazionalismoaren ezaugarriak

René Descartesek, arrazionalismoa sortu zuenean, mugimendu honen ezaugarriak edo asmoak azpimarratu zituen. Alde batetik filosofia berri honek erdi aroko Teologiaren agintearen aurrean **Filosofiaren eta arrazoiaren autonomia** aldarrikatzen du. Erdi Aroko filosofoek arrazoa fedearen barruan ulertzen dute (Agustin Hiponakoa) edo, nahiz eta arrazoa fedetik autonomia dela esan, beti fedearen ondoan eta bere menpean egon behar da giza ezagutza (Tomas Aquinokoa). Descartesek filosofia egin nahi du fedea edota jainkozko errebelazioak esaten duena kontuan hartu gabe. Gizakiak, bere ahalmen logikoaz baliaturik bakarrik, galdera guztien erantzuna aurkitu behar du.

Filosofu honek, arrazoiaren guztizko ahalmenean sinetsi zuen: *Giza arrazoiak den-dena ezagut dezake, Arrazoiak natura bere osotasunean uler dezake eta honela natura menperatu dezake ere. Arrazoa mugagabea* da, ez dago ezer giza ezagutzatik at geratzen dena. Aurreko filosofo kristauak jarrera hau harrokeriatzat hartuko lukete, den-dena jakin dezakeen bakarra jainkoa baita.

Arrazionalismoaren printzipio nagusia arrazoiak zentzumenetik at lan egiten duela da. **Zentzumena ez da bide zuzena** ezagutzeko. Zentzumenek engainatzen gaituzte. Bide bakarra arrazoa da. Hau da, hain zuzen ere, arrazionalismo hitzak esan nahi duena: arrazoa zentzumenik gabe. Jarrera hau Parmenidesengan edo Platonengan ikusi dugu. Baina zentzumenen bidez lortutako ezagutzak baliorik ez badu, nola hasten da gure ezagutza? Descartesek, Platonen antzera, jaiotzetik **ideia innato** edo jaiotzetiko ideia batzuek ditugula zioen, jaiotzetiko ideia horietatik hasi eta, arrazoa ongi aplikatuz, dedukzioaren bidez dena ezagut dezakegula. Arrazoa ongi bideratzeko **metodo** egoki bat beharrezkoa da. Descartesek, matematikaren metodoan aurkitu zuen erdua, metodo axiomatiko-deduktiboa, hain zuzen.

Azkenik, arrazoa bakar bat da (**arrazoiaren batasuna**) gizaki guztiontzat berdina. Gizaki guztiok printzipio logiko berdinak ditugu, horregatik jakintza bakar bat da, egia bakarra delako. Beraz, filosofo eta zientzialarien artean ezin da desadostasunik gertatu. Horretan Descartesaren pentsamenduak duen dogmatismoaren kutsua ikus dezakegu.

Descartes Filosofia tradizional eskolastikoan ikasia zen, La Flechen ideia tomistak ikasi zituen. Horrez gain, matematika eta natur zientziaren maitalea zen ere. Aurreko mendeetan zientziak emana zuen aurrerakada ezagutu zuen eta konturatu zen Filosofia Tomas Aquinokoaren sistema teozentrikoan geldirik mantentzen zela, oraindik Jainkoaren existentziari buruz eztabaidatzen zuelarik. Descartesek **Filosofiak aldaketa behar duela** ikusi zuen: zientziak egina zuen arabera, metodo egoki batekin, lehen printzipioak aurkitu behar ziren, horietatik abiatuz eta dedukzioaren bidez, egia filosofiko guztiak aurkitu arte.

Filosofiaren helburua beraz, **arrazoiaren bidez benetako egia aurkitzea** da. Arrazoa autonomia, hau da, mitoak edo sinesmenak erabili gabe, beraz, teologiatik at; eta ikusi dugunez, zentzumenez fidatu gabe.

2 METODOA ETA ZALANTZA METODIKOA

Nolakoa da Metodoa?

Descartesek erabiltzen duen **metodoa deduktiboa** edo axiomatikoa da.

Aurreko urtetik metodo zientifikoak errepasatzen:

Zientzian bi metodo erabil daitezke:

Zientzia formalak:

metodo axiomatiko-deduktiboa erabiltzen dute: aurretik, printzipioa ebidenteak aurkitu behar ditugu (axiomak), lehenengo egia ebidenteak, eta gero, erregela logikoak aplikatuz, beste egiak deduzitu edo ondorioztatuko ditugu (teoremak). Metodo hau Matematikak eta beste zientzia formalek erabiltzen dute

Zientzia enpirikoak:

zentzumenezko datuekin lan egiten duten zientziak dira. Zientzia hauentzat Galileo Galileik metodo hipotetiko-deduktiboa proposatu zuen: aurretik zentzumenezko datuak jasotzen ditugu, gero datuak azaltzeko modukoa den hipotesi bat adierazten dugu, eta gero hipotesi hori beste kasuetan zentzumenezko esperientzia frogatzen saiatzen dugu. Kasu berrietan frogatzen badugu, hipotesia legea bihurtzen da. Galileok "hipotetiko-deduktibo" izena eman arren, metodo hau ez da deduktiboa baizik eta induktiboa: datu konkretuetatik, orokortzen, egia orokorrak ondorioztatzea.

Metodo deduktiboa alderantzizkoa da:

frogatutako egia orokorretatik, kasu partikularretan aplikatzea da

Descartesek filosofiarako proposatu zuen metodoa matematikak erabiltzen duena bezalakoa da. Bere ustez, lehenengo printzipio ebidenteak aurkitu behar ditugu eta gero metodoaren erregelak aplikatu. Filosofo frantziarrak erregela gutxi aipatzen ditu, lau erregela hauek:

- a) Ebidentzia
- b) Analisia
- c) Sintesia
- d) Berrikuspena

Erregelen azalpena:

Metodoaren lehen erregela: **Ebidentzia edo nabaritasuna.**

Ez dugu ezer egiazat hartuko argi eta garbi egia dela jakin arte, dudarik ez izan arte, guztiz nabaria, ebidentea izan arte. Zer da ebidentzia Descartesen ustez?

Aurreko urtetik egia edo ebidentziaren gaia errepasatzen:

EBIDENTZIA: guztiz egiazkoa dena

Bi ebidentzia mota dago:

- Ebidentzia sentsiblea: zentzumenez dugun datua. Somatzen ari garelako ebidentea da.
- Ebidentzia logikoa: arrazoiari edo adimenari guztiz zalantza ezina egiten zaiona. Adibidez, ezin da A eta ez-A aldi berean agertu.

Descartesen ustez, ebidentzia logikoa da, ez baitu onartzen ebidentzia sentsiblea, hau da, sentimenen bidez lortutakoa.

Bigarrena: **Zatiketa edo analisisa.**

Behin lehenengo egiak aurkitu eta gero, hauek analizatu edo aztertu behar dira, zatitu, bere elementuak edo osagaiak ikertu, zati atomikoak aurkitu arte. Eta gauza hauetatik beharrezkoa dena ondorioztatuko da, hau dedukzioa izango da. Lehenengo egiazko beste egiak ondorioztatuko ditugu.

Hirugarrena: **Sintesia.**

Edo sinplifikazioa: gauza sinpleenetatik poliki-poliki gorantz joatea konplexuenetara iritsi arte. Hau da, analizatu eta gero, atera ditugun ondorio guztiak batu eta teoria orokorra egin dezakegu.

Laugarrena: Zenbatu eta **Zerrendatu.**

Prozesua bukatuta, dena berrikustea, dena zerrendatuz ezer ez ahazteko, eta dena ongi egin dugula ziurtatzeko.

Lehenengo erregela aplikatzen: Zalantza Metodikoa

Lehenengo erregela Ebidentziarena da, hau da, lehen egia ebidentea aurkitu behar dugu. Horretarako Descartesek **zalantza metodikoa** aplikatzen du, hau da, dena zalantzan jartzen du. Zalantza hau metodikoa da, metodo bezala erabiltzen du. Eszeptizismoaren bidea hartzen du, baina Descartes ez da eszeptikoa, metodo hau erabiltzen du, baina azkenean zalantza argituko zaio.

Beraz, gure filosofoak egiten duen hausnarketa hau da: denetaz zalantza egiten dut zerbait guztiz nabaria aurkitu arte, zalantzarik gabe egiazkoa dela jakin arte. Zalantza honek **hiru gradu** dauka:

- Lehenengo gradua: **Sentimenezko** gauzak zalantzan jartzen ditu. Descartes ez da zentzumenez fidatzen. Zentzumenek, dio, noizbait

engainatzen bagaituzte, posiblea da beti engainatzea, beraz, zentzumenen bidez ezagutzen dudana guztia zalantzan jartzen dut, eta ez dut hartzen egiazat.

- Bigarren gradua: Errealitate materiala orokorrean zalantzan jartzen du: **Loa eta esna aldia** bereizteko ahalmena zalantzan paratzen du: Lotan egonik, ametsetan ikusten dudana askotan egia dela dirudi, zergatik ez dut pentsatu behar oraintxe presente dudana amets bat denik?
- Hirugarrena: Baita **egia matematikoak** (oro har, arrazoiez ondorioztatzen ditudan egia) ere zalantzan jartzen ditu. Hau zalantza "hiperbolikoa" (gehiegizkoa) da, gehiegikeria delako, nola egin daiteke zalantza matematikari buruz? Ametsetan ere badago gauza bat inoiz aldatzen ez dena: matematika. Baina gerta daiteke gure buruan deabru gaizto bat egotea eta horrek, egia matematikoak gezurrezkoak izanik, egiazkoak direla pentsarazten digu, engainatzen gaitu. Jainkotxo engainatzailearen hipotesia da: gure arrazonamendu guztiak nahasten dituen norbait edo zerbait egon daiteke.

Laburtuz, Descartesek, metodologikoki, ez du egia bat ere onartzen, ez enpirikoa (esperientziakoa) ez formala (arrazoizkoa, adibidez egia matematikoak). Beraz, den-dena zalantzan utzi egin du. Denetaz zalantza egiten du. Badirudi ez dagoela irtenbiderik, baina puntu honetan bere lehenengo egia aurkituko du.

Metodo honekin, zientziaren metodologia imitatu nahi du, erregelak jarraituz eta gauza guztiak ongi argituz.

3 LEHEN EGIA NABARIA: "COGITO, ERGO SUM"

Zalantza metodikoan gelditu gara. Dena zalantzan jarri dut. Ezin dut ezer ziurtatu, zerbait guztiz nabaria aurkitu arte.

Baina denetaz zalantzatzen ari banaiz, hemen dago lehenengo egia ebidentea: zalantzatzen ari naizela. Dena zalantzan paratu dezaket gauza bat izan ezik, zalantzatzen ari naizela. Eta zalantza egitea pentsatzea da, pentsatzeko modu bat da. Beraz, pentsatzen ari naizela ezin dut zalantzan eduki.

Eta pentsatzeko, izaki pentsatzaile bat izatea beharrezkoa da. Izaki pentsatzailea ez den inork ezin du pentsatu. Beraz, zalantza egiten badut pentsatzen ari naiz, eta pentsatzen badut izaki pentsatzailea bat naizelako da. Hortaz izaki pentsatzaile bat naizela konturatzen naiz, hau da, **NI PENTSATZAILE** bat naizela, hau da, **ni naiz**, hori ezin dut zalantzatu, hori ebidentea da:

"Cogito, ergo sum", Pentsatzen dut, beraz banaiz.

Esaldi hau ongi ulertu behar dugu: Pentsatzen dut, beraz banaiz. Esaldi honetan bigarren egia (naizela) ez da lehenengoa eta gero etortzen: ni ez naiz pentsatzen dudalako, aitzitik, nik pentsatzen dut izaki pentsatzailea naizelako, Baina nik badakit naizela, pentsatzen ari naizela dakidalako. Nire existentziaren ebidentzia daukat pentsatzen dudala dakidalako. Existentzia ez da pentsatzearen kontzekuentzia, gauza bera da, eta horregatik **NAIZELA** konturatzen naiz, **PENTSATZEN DUDALA** dakidanean.

Badakit existitzen naizela, baina nik ez dakit nire existentzia materiala den ala ez, nik dakidana da existitzen naizela pentsatzaile bezala, pentsamendu bezala, baina ez izaki material bezala, hori oraindik ez dakit. **Ni existitzen naizela pentsatzaile bezala**, hori da lehenengo egia ebidentea.

4 LEHEN EGIAREN ANALISIA: IDEIA INNATOAK

Lehen egia nabaria eta ebidentea **NI PENTSATZAILE** bezala existitzen naizela da. Ondoren eta metodoa aplikatuz NIA edo pentsamenduaren edukia analizatuko dugu: zerez osaturik dago nire pentsamendua? Zer dago horren barruan?: **IDEIAK**. Analisiaren arau metodikoari jarraituz, pentsatutako ideiak identifikatu eta sailkatu egin behar dira. Ideia hauek pentsamendu subjektiboaren eduki hutsak direnez guztiak berdinak dira, objektiboki desberdinak badira ere. Nolakoak dira nire pentsamenduan dauden ideiak? Guztiak berdinak dira nire pentsamenduan daudelako (subjektiboki berdinak), baina eratorri ezberdina dute (objektiboki ezberdinak). Honela sailkatzen ditu Descartesek ideiak:

Ideien sailkapena:

1. Ideia arrotzak: esperientziatik datozen ideiak dira, zentzumenen bidez datozenak. Faltsuak dira, zentzumenetaz ezin dugu fidatu; nik ez dakit kanpoko mundu hori eta nire gorputza egon badauden ere.

2. Irudimenezko ideiak: beste ideia batzuetatik subjektuaren adimenak sortutakoak dira. Nire pentsamendua aurreko beste ideia batzuetan oinarrituta sortzen ditu ideia horiek; adibidez, "zaldi hegaladuna" edo "estralurtarra". Ideia hauek ere faltsuak dira, oso argi dago nik asmatu ditudala eta ez dutela benetako existentziarik.

3. Jaiotzetiko ideiak (innatoak): Badut ordea zenbait ideia zentzumenetik edo irudimenetik etortzen ez direnak, hala ere, nire pentsamenduan argi eta garbi agertzen dira. Ez badira inondik etortzen, orduan berezko ideiak dira, jaiotzetikoak alegia, ideia innatoak dira. Arrazoiari lotutako ideiak dira eta aurrekoen desberdinak, ez baititut neronek sortu eta ezin daitezke kanpoko munduan edukitako ustezko esperientzia batetik etorriak izan. Jatorrizkoak diren hiru ideia daude: Nia, Mundua eta Jainkoa. Ni existitzen naizela, mundua existitzen dela eta Jainkoa badela.

Hurrengo urratsa ideia hauek errealitatezkoak diren ala ez ikertzea da, ea benetan Ni, Mundua eta Jainkoa existitzen diren eta ez bakarrik nire pentsamenduan, ea hiru substantzia horiek egiazkoak diren. Hiru substantzien teoria beste puntuan ikusiko dugu baina hemen aurreratzen dugu: Nia ebidentea denez existitzen da, eta hemendik Jainkoa eta mundua existitzen direla ere ondorioztatzen du.

DESCARTESEN EZAGUTZAREN GAINEKO TEORIAREN ONDORIOAK

- Descartesena asmoa filosofia era autonomo batez egitea zen, bakarrik arrazoia erabiltzen eta teologia erabili gabe, baina azkenean ideia tomistak errepikatzen ditu (Nia, Mundua eta Jainkoa) eta ezinbestez jainkoaren ideia nagusitzat onartzen du.
- Bere pentsamenduan, egia logikoki ebidentea dena da, eta ez zentzumenezko ebidentzia (hori faltsua baita). Ebidentzia arrazionala onartzen du, besterik ez; hots: argi eta garbi nire pentsamendura aurkezten dena, zalantza izpirik gabe. Metodo honekin ondorioztatzen du Niaren egia eta horrela ere Jainkoa existitzen dela esaten du. Pentsamendutik existentzia ondorioztatzen du, eta hori Tomasek berak ezeztatu zuen: pentsamendutik ezin da existentzia ondorioztatu froga enpirikoak ez baditugu.
- Oinarritzko egia zein den galdetzerakoan Descartes paradoxa batean erortzen da: alde batetik esaten du Nia dela lehenengo ideia, baina gero esango du gure egia guztiak, Niarena ere bai, Jainkoak ziurtatzen dizkigula. Beraz, Jainkoa da egia guztien ziurtatzailea; nire gogamena nahastean ez dela jakiteko, Jainkoaren garantia edo bermea dugu. Beraz, azken finean giza jakintza guztia Jainkoaren eskuetan dago. Nia

guk dugun lehen ebidentzia da, baina Jainkoa da ebidentzia eta beste egia guztien oinarria.

- Bere ezagutzaren gaineko teoria ez dago Platonengandik urrun: ez du zentzumena onartzen eta jaiotzetik ideia innatoak ditugula onartzen baitu.
- Finean, Descartes-en filosofia teologiatik kanpo ez dago, eta, nahiz eta bere asmoa oso "moderno" izan, bere filosofia platonismoaren eta teologismoaren nahiko hurbil dago.

b) ERREALITATEAREN TEORIA: HIRU SUBSTANTZIAK ETA GIZAKIAREN TEORIA

Descartesek metodo aurrerakoi baten bidez lehen egia ebidentea aurkitu du: Ni existitzen naiz pentsatzaile gisa. Gero Lehen egia analizatu du eta pentsamenduan ideia arrotzak eta irudimenezkoak, biak faltsuak, izateaz gain hiru ideia innatoak daudela onartzen du: Nia, Mundua eta Jainkoa. Hiru substantzia hauek errealitatea osatzen dute. Aurreko puntuan ezagutzaren teoria ikusi dugu eta hemen **Descartes-en Metafisika** edo errealitatearen teoria.

Orain Descartesek errealitatearen egitura azalduko digu, errealitatean hiru substantzia mota daudela esanez: Pentsamendua, Mundu materiala eta Jainkoa edo guztiaren sortzailea. Baina **nola arrazoitu hiru substantzia hauek existitzen direnik?** Ideiak pentsamendu subjektiboaren eduki hutsak direla jakin badakigu, aitzitik objektiboki errealitatean korrespondentziarik ba ote duten zalantza egiten dugu. Beharrezkoa da beraz argitzea, gure pentsamenduan egoteaz gain, hiru ideia hauek errealitatean existitzen diren substantziak direla.

Aurrera egin baino lehen argitu dezagun zertan datzan **Substantziaren definizioa** Descartesengan. Substantzia existitzen den gauza konkretu eta existitzeko beste ezeren beharrik ez duena da.

Bi substantzia mota daude; bata substantzia infinitua, jainkoa, eta bestea, substantzia finituak, arima eta gorputza. Lehenak, Jainkoak, ez du beste deusen beharrik existitzeko; arima eta gorputzak aldiz, Jainkoaren beharra badute ere ez dute beste substantzia finiturik behar existitzeko, hau da, ez dute beste gorputz edo arima baten beharrik.

Baina nola arrazonatzen du **hiru substantzi hauen existentzia?** Gauza bat da ideia buruan izatea eta beste gauza bat da hori benetan existitzea.

Niaren existentzia:

Ni existitzen naizela argi dago, lehen egia da. Descartesek dena zalantzan jarri du (zalantza metodikoa), zentzumenezko gauzak, errealitate bera (loa eta esna bereizteko ezintasuna) eta egia matematikoak edo logikoak ere zalantzatu ditu. Baina ezin dut zalantzatu zalantzatzen ari naizenik, beraz, argi dago pentsatzen dudala, eta pentsatzen badut izaki pentsatzaile naizelako da, beraz, existitzen naiz.

Substantzia infinitua edo Jainkoaren existentzia:

Descartesek jainkoaren existentzia nia-tik ondorioztatzen du: Giza pentsamenduan betidanik egon da ideia hori: Jainkoa existitzen dela. Jainkoa izaki infinitua da. Baina nola da posible izaki infinituaren ideia gure gogamenean egotea? Nola, baldin eta ni finitua ba naiz? Bakarrik da posible, izaki infinitua benetan existitzen bada, nik ezin baitut ideia hori bakarrik asmatu. Horregatik, Jainkoaren ideia baldin badut, horrek esan nahi du Jainkoa existitzen dela.

Argumentu hau argudio ontologikoa besterik ez da, Anselmo Canterburykoa, eta duela sei mende kritikatu izan zen. Hala ere, Descartesen ustez, argumentu honek Jainkoa existitzen dela demostratzen du zalantzarik gabe.

Beraz, Jainkoa existitzen da. Jainkoa ona da, orduan gure buruan dauden ideia guztiak egiazkoak direla badakigu ere: mundua existitzen dela, edo ideia matematikoak eta arrazional guztiak egiazkoak direla. Jainkoak eman digu arrazoimena eta ezin gaitu engainatu. Are gehiago, niaren existentziaren egia ere jainkoak ziurtatzen dit. Ebidentea zen, baina orain ziurtasun osoa daukat.

Munduaren existentzia

Mundua existitzen dela betidanik dudan ideia argi bat da, ideia innato bat da. Baina, nola dakit benetan mundua existitzen dela, eta ez bakarrik nire pentsamenduan? Aurrean adierazitako argumentua da Descartesek berriro erabiltzen duena: Jainkoa existitzen dela behin jakinez gero, eta Jainkoa izakirik onena baldin bada, Jainkoak ezin du onartu guk munduaren existentzian sinestea eta gero egia ez izatea, horregatik argi dago mundua bai existitzen dela, Jainkoa ez litzateke horren gaiztoa izango, gu engainatzeko. Mundua existitzen dela dakigu Jainkoa ona dela dakigulako.

Beraz, Descartesen ustez hiru substantzia existitzen dira:

- **Res extensa:** mundua, errealitate materiala. Zentzumenez ezagutzen dugu, baina zentzumenetaz ezin gara fidatu, bai ordea Jainkoaz, eta horregatik dakigu mundua existitzen dela.
- **Res cogitans:** Nia, pentsamendua. Hau lehen egia ebidentea da eta beraz bere existentziaren ebidentzia dugu, eta Jainkoak ziurtasun osoa ematen digu.
- **Res infinitua:** Jainkoa, esan bezala, nire pentsamendutik ondorioztatzen dut Jainkoaren existentzia. Jainkoa da substantzia lehena eta beste biak sortu dituena. Jainkoa da, gainera, nire pentsamenduan hiru ideia innatoak jarri dituena.

Ikusten dugunez, Niaren existentzia argumentu ontologiko baten bitartez ondorioztatzen du Descartesek: buruan dudan niaren ideia ebidentea delako; Jainkoaren existentzia ere argumentu ontologikoaren bidez: pentsamenduan dudan Jainkoaren ideiatik abiatuta, eta munduaren existentzia sinismenaren bidez: jainkoaz fidatzen gara.

Descartesi teoria honengatik kritika asko egin zaio. Alde batetik argumentu ontologikoak erabiltzeagatik: ideia batetik ezin da ezeren existentzia ondorioztatu. Beste aldetik Descartesen teorian zirkulu itxi bat dago: Jainkoaren existentzia Nia-tik ondorioztatzen da, baina azken finean jainkoa da gure egia guztiak ziurtatzen dituena, beraz Jainkoa Niarekin justifikatzen da eta Nia jainkoarekin.

GIZAKAIEN GAINEN KONTZEPTUA

Descartsek giza bikoiztasuna onartzen du. Bi adlerdi ditugu: pentsamenduarena eta gorputzarena. Hemen, beraz, Platonekin ez dago ezberdintasunik. Beste aldetik, kristaua denez, kreaionismoa ere defendatzen du. Honetan, beraz, Agustin Hiponakoa edo Tomas Aquinokoaren antropologia bera aurkitzen dugu.

Ondorioak:

Ikusten dugunez, Descartes eta Platonen filosofiak ez dira oso ezberdinak: Biek bi munduak onartzen dituzte eta giza bikoiztasuna ere. Bientzat arrazoia da bide bakarra, zentzumena ukatuz. Dena den planteamendua ezberdina izan da: Descartes zalantzatik hasten da, eta Platonek ez du zalantzarik egiten.

Descartsek Filosofia berritu nahi du baina azkenean filosofia eskolastikoaren antza du bere pentsamenduak, doktrina kristaua goitik behera onartuz, eta neo-platonismora itzuliz. Baina azkenean bere filosofia osoa Jainkoaren existentzian oinarritzen du eta hiru substantzia tradizionalak onartzen ditu (nia, mundua eta jainkoa), hauek Tomismoan planteatzen zirenak dira.

Jainkoaren frogak ez da zuzena, argudio ontologikoa besterik ez da. Eta Cogitoaren argudioa ere ez da baliagarria: Pentsamendua eta existentzia parekatzen du. Honetan Parmenidesekin bat dator (Gauza bera da izatea eta pentsatzea). Hau ere argudio ontologiko bat da (Pentsamendutik existentzia ondorioztatzea) eta beraz ez da zuzena. Hala ere, Descartes Modernitatearen aita kontsideratzen da.

DESCARTESEN TESTUREN KONTZEPTUAK DEFINITZEKO

Meditazio metafisikoak

Bigarren meditazioa

Giza naturari buruz, gorputza baino errazagoa ezagutzen dena.

Atzoko Meditazioak adimena **zalantzaz** bete dit, eta hainbeste dira, gainera, zalantza horiek, non ezin ahaztuko ditudan aurrerantzean. Baina, hala ere, ez dut ikusten nola aurki diezaiekedan irtenbiderik; eta harrিতa nago, bat-batean oso ur sakonetan erori izan banintz bezala, hondoa ukitu ezinik edo ur gainean mantentzeko igeri egin ezinik. Saiatuko naiz, hala ere, eta atzo sartu nintzen bide berari eutsiko diot, zalantzarik txikiena bururatzeko aukera eskain diezadakeen gutzitik urrunduz, gutziz faltsua dela bainekien; eta aurrera egingo dut zerbait ziurra aurkitu arte, edo gutxienez, besterik ez bada, ziurtasun osoz jakin arte ez dagoela ziurra den ezer.

Arkimedesez lur osoa bere lekutik mugitzeko puntu bat eskatzen zuen, finkoa eta higiezina, besterik ez. Horrela nik ere itxaropen handiak izan ditzaket aurkitzen badut gauza bakar bat **egia** eta zalantzatu ezina dena.

Ikusten ditudan gauza guztiak faltsuak direla suposatuko dut; pentsatuko dut nire oroimen engainakorrek agertzen didan guztia ez dela existitzen; ez dudala inolako sentipenik; gorputza, irudia, hedadura eta lekua kimerak besterik ez direla. Zer izango da, orduan, egia? Agian ez dela ezer egia dena, hori bakarrik.

Baina nola jakingo dut nik ba ote dagoen ezer aipatu ditudan gauza horietaz gain, zalantzarako motiborik txikiena ere emango ez duena? Ez al da Jainkoa izango -edo beste edozein izen ematen diogun izakiren bat- pentsamenduok gogoan sartu dizkidana? Hau ez da beharrezkoa, agian ni neu ere izan naiteke eta horiek ekoizteko gauza. Ez al naiz **ni**, orduan, zerbait izango gutxienez? Alabaina, ukatu egin dut nik sentipenik edo gorputzik dudarik. Hemen zalantzak sortzen zaizkit, zer ondorio ateratzen da hortik? Nire gorputzarenganako eta sentipenenganako menpekotasuna dela eta, ezin al dut horiek gabe existitu? Nire burua konbentzitu dut munduan ezer ez dagoela, ez zerurik, ez lurrik, ez adimenik, ez gorputzik; ez al da hortik ateratzen ni ez naizela existitzen? Ez ba; nik existitu behar dut ni neu zerbaitetaz konbentzitutua banago. Baina **badago ez dakit zer bat engainatzailea dena**, ahalguztiduna eta gutziz zuhurra, bere artezia guztia ni beti engainatzeko erabiltzen duena. Ez dago, beraz, zalantzarik existitzen naizela, huts egiten dut eta. Eta berak nahi adina nahasten banau ere, ez du lortuko ni ezer ez izatea zerbait pentsatzen dudana artean. Horrela, gogoeta egin eta gero, ondorioztatu behar dut ni naiz, **ni existitzen naiz** esaldiak derrigorrez egia izan behar duela ahoskatzen dudana bakoitzean edo nire adimenean bururatzen dudana guztietan.

Baina ez dut ulertzen oraindik oso argi zer naizen, ni banaizela seguru nagoen arren. Horregatik arretaz jokatu behar dut eta oharkabea ez dut nitzat hartu behar ni ez naizen beste zerbait, eta honela ez dut hutsik egingo nire ezaguera honetan, nire ustez zurrena eta ebidenteena dena.

Beraz, azken gogoeta hauetara heldu aurretik nire naturaz pentsatzen nuena hartuko dut kontutan berriro, eta nire lehenagoko iritzien artetik ezabatuko dut eskaini berri ditudan arrazoiekin zalantzatan jar daitekeen guztia, ezer ez geratu arte ziurra eta zalantzatu ezina ez dena. Zer izan naiz ni, orduan, nire iritzirako orain arte? **Gizakia**, jakina. Baina, zer da gizakia? Animalia razionala dela esango al dut? Ez, bestela animalia zer den eta razionala zer den aztertu beharko nuke eta. Horrela, galdera bakar batetik abiatuz, oharkabea, hamaika galdera zailagotan murgilduko ginatke, eta ez dut nire asti urria galdu nahi halako xehetasunetan. Horren orde z gehiago arduratuko naiz nire adimenean (nire naturari buruz gogoetatzen hasten naizenean), bat-batean eta berez sortzen zaizkidan pentsamenduez. Hasteko bururatzen zait aurpegia dudala, eskuak, besoak...; eta hezurrez eta haragiz (gorpu batean aurkitzen diren moduan) osatutako makina honi **gorputza** deritzot. Bururatuko zait gainera elikatzen naizela, mugitzen naizela, sentitu eta pentsatzen dudala, ekintzak arimari

atxikitzen dizkiodalarik. Baina ez naiz geldituko **arima** hau zer den pentsatzen, edo geldituta ere irudikatuko dut oso bakandutako haizea, sua edo etera dela, nire gorputzeko parterik sendoenetan zabaltzen dena. Gorputzei dagokienez, ez dut euren naturaz zalantzarik egingo, bera oso bereiziki ezagutzen dudala uste dut eta; natura hori azaldu nahiko banu zera esango nuke: "gorputz hitzaz ulertzen dut irudi batek mugatzen duen guztia; leku batean sartzen dena; espazio bat betetzen duena beste edozein gorputz baztertuz espazio horretatik; senti daitekeena ukituz, ikusiz, entzunaz, dastatuz edo usainduz; era askotara mugi daitekeena, ez berez, bera ukitzen duen beste zerbaiten indarrez baino". Zeren mugitzeko, sentitzeko eta pentsatzeko ahalmenei dagokienez, ez dut uste eurak berez izatea gorputzaren ezaugarritzat har litekeen abantaila denik; haatik, harritzen nau gorputzen bat egon dadila ahalmen horiek izango lituzkeena.

Baina zer izango naiz ni, behin suposatu dudanez gero badela norbait ahalguztiduna dena eta -horrela esan badezaket- maltzurra eta engainatzailea ere, eta bere ahalegin guztiak egiten dituen ni nahasteko? Baiezta al dezaket gorputzaren naturaren ezaugarritzat jo ditudan horietatik bakarra ere dudala? Arreta jartzen dut eta pentsatzen dut gauza hauetaz, bueltak ematen dizkiot nire buruari, eta ez zait ezer bururatzen, eta ez da beharrezkoa gauza horien artetik guztiak zehaztea. Jo dezagun, orduan, **arimaren atribuetara**, eta begira dezagun ea badagoen horietako baten bat nire baitan. Lehenak elikadura eta higidura dira, baina egia bada gorputzik ez dudala egia da, halaber, ezin naizela higitu eta ezin naizela elikatu. Beste bat sentitzea da, baina ezin dut sentitu gorputzik gabe; gainera, ametsetan sentitu izan ditut zenbait gauza, eta gero, iratzartean, konturatu naiz sentitu ez ditudala. Beste bat pentsatzea da, eta jabetzen naiz hemen **pentsamendua** niri dagokidan atributua dela, bera da niregandik banandu ezina den bakarra. Ni naiz, ni existitzen naiz, hau egia da orduan, baina noiz arte? Nik pentsatzen dudan artean. Izan ere, baliteke nik pentsatzeari utziz gero existitzeari erabat uztea ere. Zehaztasunez hitz eginda, beraz, pentsatzen duen zerbait besterik ez naiz, hau da, gogoa, **adimena edo arrazoimena** naiz (hitzon esanahia orain arte ezezaguna zitzaidalarik), eta honekin ez dut ezer onartzen beharrezko egia baino. Benetako gauza naiz orduan, benetan existitzen dena, baina zer gauza? Esana dut: pentsatzen duen gauza. Eta zer gehiago? Nire irudimena erabiliko dut. Ez naiz giza gorputza deritzon gorputzadar multzoa; ez naiz bere gorputzadar guztietan hedatzen den aire fin eta sarkorra; ez naiz haizea, ez sua, ez lurruna, ezta nik burura edo irudika dezakedan ezer ere, hau guztia ez dela ezer suposatu baitut, eta suposapenez aldatu gabe aurkitu dut zerbait naizela.

Descartes, *Metodoari buruzko diskursoa/Meditazio metafisikoak*,
Klasikoak, 1997, orr 129-132

DESCARTESEN TEORIA ETA TESTUA LANTZEKO

Galderak erantzun baino lehen apunteak, liburua eta testua ongi irakurri behar dira.

1. Zer da Jainkoa Descartesentzat?
2. Konparatu Descartesen eta Platonen ezagutzaren teoriak
3. Nola demostratzen du Descartesek arimaren existentzia?
4. Zer da "ebidentea" Descartesentzat?
5. Descartesen metodoa induktiboa ala deduktiboa da? Zergatik?
6. Zertaz egiten du zalantza Descartesek?
7. Nola ebazten dira gero zalantza horiek?
8. Zer dira "res cogitans" eta "res extensa"?
9. Egizu testuaren laburpena. 10-15 lerrotan
10. Definitu edo azaldu beltzez agertzen diren kontzeptuak edo esaldiak: zer da Descartesentzat kontzeptu bakoitza edo esaldiak zer esan nahi du?